



AZTERKETA ELEKTROFISIOLOGIKOARI BURUZKO INFORMAZIO-ORRIA

Azterketa elektrofisiologiko horri esker, arritmia zer motatakoa den eta zer larritasun duen jakin daiteke. Sortzen diren bihotzaren lekua eta eragiten dizkizuten nahasmenduak jakiten laguntzen du.

Informazio hori izanda, zure medikuak erabaki dezake zuretzako tratamendurik onena zein den.

Zertan datza?

Prozedura anestesia lokala erabiliz egiten da (eremua soilik lokartzen da). Behar izanez gero, eskuineko izterrondoa soilduko dizute. Etxean zuk zeuk egin dezakezu, proba baino lehen.

Izterreko zaina eta/edo arteria ziztatzen da (eskuinekoa, normalean). Ziztada horretatik kateter batzuk sartzen dira. Kateterra oso kable fina, luzea eta malgua da. X izpien edo erradiaziorik gabeko nabigazio-sistemen laguntzarekin, kable horiek bihotzeraino eramaten dira.

Kateterrek bihotzaren jarduera elektrikoa barrutik erregistratzen dute.

Bihotza elektrikoki estimulatzeko ere balio dute. Estimulazio hori beharrezkoa da arritmia mota identifikatzeko.

Batzuetan, diagnostikoa baieztatzen laguntzeko medikamenturen bat ematen da probak iraun bitartean.

Nola prestatu behar dut probarako?

Beharrezkoa da proba baino gutxienez 6 ordu lehenago ezer ez jatea eta ez edatea. Gosariko ohiko medikazioa har dezakezu, ur pixka bat edanez.

Antikoagulatzaileak hartzen badituzu (tronboak edo koaguluak sortzea saihesten duen medikamentua), mediku-taldeak egun horietan nola hartu azalduko zizun.

Diabetesa baduzu, bete jarraibide hauek:

- Aurreko gauean: hartu ohiko medikazioa.
- Prozeduraren egunean: ez hartu diabetesaren aurkako pilularik gosarian.
- Ez jarri INTSULINA AZKARRIK prozedura baino lehen.
- Goizean insulina erabiltzen baduzu, prozeduraren ONDOREN jarri.

Hortzordeak badituzu, harrera-solairuan sartzen zaren unean kendu beharko dituzu.

Audifonoak erabiltzen badituzu, izan itzazu jarrita, ondo komunikatu ahal izateko.

Nora joan behar dut proba egunean?

Joan zaitez Txagorritxuko Ospitaleko onarpen-zerbitzura. Beheko solairuan dago, sarreraren ondoan.

Handik, harrera-unitatera lagunduko dizute.

Nola egingo didate proba?

Ospitalizazio-unitatera iristean:

- Harreran ohe-atorra bat emango dizute, eta jantzi egin beharko duzu.
- Erizainak zainetako bide bat jarriko dizu ezkerreko besoan, ahal dela, prozeduran agian beharko duzun medikazioa emateko.



Prozedura egitea:

- Ohatilan etzango zaituzte, eta beharrezkoa denean soilik desestaltiko dizute gorputza.
- Prozedura osoan monitorizatuko zaituzte, hauen bidez:
 - Pegatina batzuk (elektrodoak), prozedura osoan bihotzaren jardueraren erregistroa (elektrokardiograma) ikusteko.
 - Tentsio arteriala hartzeko mahuka bat.
 - Batzuetan, saturimetro bat atzamarrean, oxigeno-maila neurtzeko.
- Izara esteril batez estaltiko zaituzte, eta izterraren eremua soilik utziko da agerian.
- Anestesia lokala emango zaizu eremuan, prozedura mingarria izan ez dadin.

Prozeduraren iraupena aldakorra da, 1-2 ordu ingurukoa.

Zer egin behar dut probaren ondoren?

Ebakuntzaren ondoren, ospitaleratuta egongo zara. Prozedura amaitu ondoren, 4-6 orduz egon behar duzu ohean geldirik, hematoma ager ez dadin.

Ezingo duzu jan prozedura amaitzen denetik 2 ordu igaro arte.

Normalean egunean bertan emango zaizu alta. Batzuetan odola bota dezakezu eta gau bat egon beharko duzu ospitaleratuta, zu kontrolatzeko.

Hurrengo 2 edo 3 egunetan, gomendagarria da esfortzu fisikorik ez egitea. Alta jasotzean, jarraipenerako hitzordua emango dizute, arritmia-konsultan.

KARDIOLOGIAKO TALDEAK ZURE INTERBENTZIOAREN BIDEOA IKUSTEA PROPOSATZEN DIZU

1. KONEKTA ZAITEZ HEMEN:

<https://meduvipiberia.okast.tv>

Edo eskaneatu hurrengo QR kodea



2. IDENTIFIKA ZAITEZ HEMEN:

Helbide elektronikoa: cardio@txago.eus

Pasahitza: **Cardio 1009**

3. KONEKTATU BERRIRO zure telefonoaren KAMERA eta ESKANEATU zure EBAKUNTZARI dagokion bideoaren QR KODEA:



4. Zure **EBAKUNTZARI** dagokion bideoa berriro ikusi nahi duzun bakoitzean, azken **QR KODEA** eskaneatu besterik ez duzu egin behar.